

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2021EKO MARTXOA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 9,5 igo dira 2021eko martxoan


2021eko lehenengo hiru hilabeteetako metatuan, salmentak % 1,9 hazi dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko martxoan, % 9,5eko urte arteko igoera izan dute Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Aurreko hilaren, 2021eko otsailaren, aldean, salmentak % 9,1 igo dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa.

(%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Establezimendu horietako salmentek portaera ezberdina izan dute produktu-motaren arabera, bai hil artean, bai urte artean

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako elikagaien salmentak, 2021eko martxoan, % 3,7 igo dira 2021eko otsailaren aldean; gainerako produktuen salmentak, berriz, gehiago igo dira, % 22,2. Hil arteko portaeraren desberdintasun horren zati bat datza Euskal AEko udalerrietan 2021eko otsailean eta martxoan COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartutako perimetro-itxierek elikadura-salmentetan eta gainerako produktuetan izan duten eragin desberdinean.

Hiru lurraldeetan igo dira salmentak, aurreko hilaren aldean. Gipuzkoan igoera % 12,1ekoa izan da, Bizkaian % 8,7koa eta, azkenik, Araban % 4,6koa.

2020ko martxoarekin alderatuta, elikagaien salmentek % 5,2ko beherakada izan dute azalera handietan eta elikadura-kate handietan. Gainerako artikuluen kasuan, joera kontrakoa izan da, % 70,6ko igoera nabarmena izan baita 2020ko martxoarekin alderatuta. Berriz ere gogorarazi behar da ezen 2020ko martxoan, martxoaren 14ko alarma-egoeraren dekretuaren ondorioz, modu desberdinean murriztu zela elikagaien salmentako eta gainerako produktuen salmentako jarduera.

Lurraldeka, Bizkaiak izan du gehikuntzarik handiena (% 13,5), eta ondoren Arabak (% 12,7), urte arteko alderaketan. Gipuzkoaren kasuan, salmentak igo diren arren, gutxiago igo dira, % 1,7.

2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko metatua, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak % 1,9 berreskuratu du aurreko urteko aldi metatu beraren aldean, eta gainerako produktuetan igoera esanguratsuagoa izan da (% 4,0) elikaduran baino (% 1,0).

Lurraldeka, aurtengo aldakuntza metatua positiboa da Araban (% 5,0) eta Bizkaian (% 3,6); Gipuzkoan, aldiz, negatiboa da (% 2,3).

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile-kopurua % 1,2 gehitu da aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 0,8 aurreko hilaren aldean. 2021eko lehenengo hiru hilabeteetako metatua ere % 0,8ko igoera izan da.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Martxoa 2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	9,5	9,1	1,9
Araba/Álava	12,7	4,6	5,0
Bizkaia	13,5	8,7	3,6
Gipuzkoa	1,7	12,1	-2,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-5,2	3,7	1,0
Beste produktuak	70,6	22,2	4,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,2	0,8	0,8

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hiler arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, martxoko indizea laginaren % **95eko estaldurarekin** kalkulatu da –horren informazioa apirilean zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62